

MEETIND. Europa eta Gipuzkoako ehun enpresa inguru elkartu dira Gipuzkoako Bazkundean europako azpikontratazio industrialeko topaketan

- *Europako Azpikontratazioko Industria Erosleen IX. Topaketa, hilaren 5ean eta 6an egingo da Gipuzkoako Bazkundean.*
- *250 bilera egin dira Europatik etorritako 22 enpresa erosle eta bertako azpikontratazio industrialeko 71 enpresen artean, eskaintza eta eskaria bateratzeko asmoarekin.*
- *Aurten, Frantzia, Holanda eta Alemaniatik etorritako enpresek parte hartuko dute. Hauetako asko trenbide, energia, makina-erreminta, ekipo-ondasunak, ekipo siderurgikoak eta industria produktuetako sektoreetan erreferente dira.*
- *Topaketa Ainhoa Aizpuruk, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeko, Landa Ingurumeneko eta Lurralde Oreekako diputatuak inauguratu du gaur.*

Donostia - 2018ko ekainaren 5a - MEETIND azpikontratazioko industriaren topaketaren gunea da. Azpikontratazioak gure lurraldeko industriaren % 27,6a ordezkatzeko du. Sektore honek Gipuzkoako ekonomian duen garrantzia kontutan izan da Gipuzkoako Bazkundeak bederatzigarren urtez jarraian, MEETIND, Europako Azpikontratazioko Industria Erosleen Topaketa antolatu du. Topaketa Ainhoa Aizpuruk, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeko, Landa Ingurumeneko eta Lurralde Oreekako diputatuak inauguratu du gaur.

Topaketa honen helburua, gure azpikontratazioko enpresen salmentak sustatzea da, horniketara iturriak zabaltzeko interesa duten europako erosleak erakarri. Aktibitate hau **Gipuzkoa Supply Chain** (Aeronautika, Makina-Erreminta osagarriak, Energia eta Medikuntza) programan barneratzen da. Era berean programa hau, **Gipuzkoako Foru Aldundiak** lehiakortasuna sendotzeko, iraunkortasuna bultzatzeko eta Gipuzkoako industria sarearen arteko elkarlana sustatzeko helburua duen programan barneratzen da.

Bederatzigarren edizio honetan Gipuzkoako Bazkundeak euren sektorean erreferente diren enpresa garrantzitsuak ekartzea lortu du. Horien artean, Alstom eta Faiveley trenbide sektorekoak, Voith Hydro energia sektorekoak, KUKA eta Fives Machining makina-erremintako sektorekoak, BOBST ekipo-ondasuneko sektorekoa, SMS Group ekipo-siderurgikoko sektorekoa eta STAUBLI industria produktuetako sektorekoa. Hauek guztiaz gain, gure ETEen bezeroak izan daitezkeen beste enpresa askok ere parte hartu dute.

Topaketan parte hartzen ari diren enpresa guztiak Gipuzkoa eta Euskadi kalitatezkoak eta fidagarriak diren hornitzaileekin lan egiteko gune bat bezala ikusten dute. Gure egiteko era espezializatuak eta gure industria enpresen dentsitate altuak gertu duten ingurune batean hornitzaile ezberdinak identifikatzeko aukera ematen die eta euren hornitzaileak gune espezifiko batean elkartzeko aukera.

250 bilera

Topaketa bi egunetan banatuko da. Lehenengo egunean, ekainaren 5ean, 100 enpresa inguru, erosleak eta azpikontrataziokoak, elkartuko dira Gipuzkoako Bazkundean eta 30 minutu iraungo duten 250 bileretan parte hartuko dute.

Bigarren egunean, ekainaren 6an, erosleek gure lurraldeko 50 enpresa bisitatuko dituzte. Bisita hauen helburua eskaeren kontratazioa sustatzea da, erosle europarrei gure enpresen ahalmenak eta kalitatea ezagutzaraziz.

Erosleak eta Azpikontratazaileak

Topaketa honetara etorriko diren 22 enpresa erosleak Frantzia, Holanda eta Alemaniakoak dira. Zazpi miloi eurotatik 8.000 miloi arte fakturatu dezaketen enpresak dira eta honako sektoreetakoak dira: trenbideak, makina erreminta, aeronautika, energetikoa, zientziarekin erlazioa dutenak, ekipo ondasunak eta siderurgiakoak.

Azpikontrataziokoei dagokionez, Gipuzkoa, Euskadi eta Estatuko 71 enpresek parte hartuko dute. Enpresa hauen aktibitateak ondorengo hauetan laburbiltzen dira: galdaketa (burdinezkoa eta burdinezkoa ez dena) txiribil-harroketakin edo gabeko transformazioa (galdaragintza, mekanizatua, estanzazioa, enbutizio, laser bidezko mozketak etb.), plastikoa, kautxua eta taldeen fabrikazioa.

Topaketa honi esker erosleak eta azpikontratazaileak onurak lortzen dituzte. Erosleak alde batetik, bilaketa pertsonalizatu baten onura lortzen du eta berak onartutako enprekin biltzen da. Bere produktibitatea hobetzen du, egun bakar batean hornitzaileak izan daitezkeen 15 enprekin elkartzen delako. Azpikontratazaileak bestalde, bere enpresentzako nazioarteko bezeroak izan daitezkenak identifikatzea lortzen du. Era berean, egun bakar batean, enpresa hauetako erosketa arduradunakin elkarrizketatzeko aukera du eta horrela profesional hauek euren enpresetara erakartzeko aukera dute.

Informazio gehiago nahi izanez gero:

Irene Bengoetxea

ibengoetxea@camaragipuzkoa.com

943 000 310 / 688884347